

Madriren, 2006ko azaroaren 16an.

Kaixo lagun:

Oso pozgarria zait BENITO LERTXUNDI kantari gipuzkoarraren biografia (euskara eta gaztelaniazko edizio desberdinetan) eta *Zergatik utzi kantatzeari?* kantutegia aurkeztea. Joan den azaroaren 13tik salgai daude Euskal Herriko liburu-dendatan.

Benito Lertxundiren biografia, "*Orioko Bardoa*": *Aitorpen eta testigantzak*, edizio paregabea da eta Benito Lertxundiren 40 urteko ibilbide musikala ospatu nahi du.

Ediciones La Voz del Folk argitaletxeak plazaratu du Euskadiko Kutxaren babespean.

472 orrialdetan Benito Lertxundi oriotarraren ibilbide artistikoaren errepassoa egiten da, 1965ean kantuan hasi zenetik joan de urtearen amaierara arte. Edizio berezi honetan bere 50 kantu ezagunen partiturak biltzen ditu.

Liburuaren egilea ÁLVARO FEITO musika eta zine kritikari eta kazetaria da, Joan Baez, Alan Stivell eta Dire Straits artista edo taldeen biografiak ere idatzi dituelarik.

Zergatik utzi kantatzeari? kantutegiak oriotar kantariaren 50 kantu ezagunenak biltzen ditu. Kantuen testuak euskaraz eta gaztelaniaz aurkituko dituzue.

Liburuaren egilea elkarrizketatu edo argitalpen hauen inguruko beste edozein berri jaso nahi baduzu jar zaitez harremanetan Ediciones La Voz del Folk argitaletxearekin honoko telefono zenbaki edo helbide elektronikoaren bidez.

tel. 916 419 409
mugikorra: 652 907 591

lavozdelfolk@hotmail.com

Agur bero bat,

José de la Fuente

Álvaro Feito
Benito Lertxundi "Orioko Bardoa":
Aitorpen eta testigantzak

OSPAKIZUNEZKO EDIZIOA
40 URTEKO IBILBIDE ARTISTIKOA

Álvaro Feito kazetariak 1990ean Benito Lertxundi kantari gipuzkoarraren inguruko lehen biografia idatzi zuen, euskaraz Elkar argitaletxeak kaleratu zuena aukera hartan. Hamabost urte geroago, Álvaro Feitok eskuizkribua zuzendu eta osatu zuen 6 kapitulu gehituz, 2005eko maiatzean Orioko Bardoaen biografia berritua gaztelaniaz argitaratu zelarik.

OSPAKIZUNEZKO EDIZIOA
BENITO LERTXUNDIREN 40 URTEKO IBILBIDE ARTISTIKOA.

2006ko azaroan, LA VOZ DEL FOLK argitaletxeak EUSKADIKO KUTXAren babesarekin, edizio berezi hau aurkezten du bi liburuki desberdinetan: euskaraz (1) eta gaztelaniaz, BENITO LERTXUNDI kantari euskaldunaren 40 urteko ibilbide artistikoa ospatzeko.

Halaxe, formatu eta diseinu berria duen 472 orrialdeko edizio berezia da hau, kapitulu berri batekin eta kontu gehiagorekin: pertsonaia historikoen inguruko aipamen biografikoak: Muñagorri, Etxahun Iruri eta Etxahun Barkoxe, Agosti Xaho, eta beste; Benito Lertxundik berak eginiko marrazki zenbaitekin osaturik.

Honez gain, kantariaren garai desberdinetako argazki-dokumentu eder eta harrigarri bat gehitu da, zuri-beltzeko nahiz kolorezko argazki berri mordoxka batekin. Argazki hauetako asko inoiz argitaratu gabeak dira.

Ospakizunezko edizio hau osatzeko oriotarraren 50 kantu ezagunenaren partiturak bildu dira.

Liburuan barrena, egileak Benito Lertxundiren ibilbide artistikoaren analisi zehatz bat egiten du. 60ko hamarkadaren erdialdean hasi zeneko kontuekin abiatu, Ez Dok Amairu talde historikoan izan zuen partaidetzarekin segi eta gaur arteko bide zabal eta emankorraren analisiarekin amaituz.

Álvaro Feitok Orioko kantariaren diskografia osoa aletzen du literalki, kantuz kantu: bere lehen amodio eta protesta kantuak, kantu tradizionalak, Zuberoako folklorea, euskal poeten obren musikatzea eta Benito beraren sorkuntza lanak.

Egileak ez du Benito Lertxundiren giza profila ahaztu nahi, zeina garbi islaturik gelditzen den: haurtzaroa, nerabezaroa, euskal kantaldietan eginiko lehen pausoak eta gizarte nahiz kultur gorabeherak. Bere ibilbide artistikoa ez da alferrik aberastu euskal kultura eta musikaren ondasunarekin.

Egile bera parafraseatuz, lan hau Benito Lertxundiren bizitza eta obrara eginiko gerturatsen bat da, aro garaikideko euskal kantari sakon eta esanguratsuenaren bizitza eta obrara.

(1) Mikel Markezek itzuli du testua gaztelaniatik euskara.

BENITO LERTXUNDI

Orion (Gipuzkoa) 1942an jaioa, Benito Lertxundi sustrai tradizionala duen musikaren eta Euskal Herriko kantagintzaren zutabe eta adierazle garrantzitsuenetako bat da. Bere lehen erreferentzia historikoa Ez Dok Amairu talde musikalaren partaide izatearekin lotzen da, bai eta Euskal Kantagintza Berriaren sorreran egotearekin, Mikel Laboa, Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Joxe Anjel Irigarai, Jexux eta Joxan Artze eta besterekin batera.

1972an Ez Dok Amairu taldearen desegitearen ondotik, Benito Lertxundik bakarka jarraitu zuen 1965ean abiatu zuen ibilbide musikala. Ordutik hona 14 disko grabatu ditu, horietariko bost bikoitzak. Benitok kantu tradizionala landu du, Lizardi, Joxe Anjel Irigarai, Juan A. Urbeltz edo Xabier Lete poeta euskaldunen testuak musikatatu, bai eta Khalil Gibran poeta libanoarrarenak edo Fernando Pessoa portugaldarrarenak. Bere sorkuntza propioak ere ondu ditu.

Benito Lertxundi poeta desberdinen literatur lanaz baliatu da bere sorkuntza musikala sendotzeko. Hauek, *Zuberoa/Askatasunaren semeei* (1977) eta *Altabizkar/Itzaltzuko bardoari* (1981) lanetan gertatzen den bezala, Euskal Herriko hainbat txokotako folklore aberatsari begira sortuak dira, harmonizazio aberatsez jantziak. Edo Erdi Aroko eta Errenazimentuko epikei begira besteetan, eta noski, zeltar kultura musikalaria, bere ibilbideko beste aldi batzuetan bezala.

1996an argitaraturiko *Hitaz oroit* 90eko hamarkadako maisu lana da. Bere intentsitate poetikoa eta bere ahots sarkor eta barnekoia, musika berrien inguruko jantzi batekin babestuenak datoz.

Ahuen sinfonikoa, 1998ko diskoa, bere kantu esanguratsuenen bilduma bat izan zen, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin grabatu zena. Zuzenean arrakasta itzelez aurkeztu zen Euskal Herriko hiri eta herri nagusietan, bai eta Andaluziako Kordoba hirian ere.

2002koa da *Nere ekialdean*, orain arte estudioan grabatu duen azkena, zeinak beste batzuen artean Benito Lertxundik musikaturiko Fernando Pessoren bost poema biltzen dituen. Hauekin batera "Nere ekialdean" poema luzea doa, Benito Lertxundik Orioko traineruko patroiz izan zen Txiki Larrañagaren omenez idatzi eta musikatua.

Iaz, 2005ean, Benito Lertxundik Gernika eta Tolosan emandako kontzertuak grabatu zituen zuzeneko disko bat argitaratzeko asmoz. Bi KD-z osaturiko lan hau urrian argitaratu zen *40 urtez ikasten egonak* izenburuarekin. Funtsean *Nere ekialdean* laneko kantuak batzen dira aurreko diskoetako beste zenbaitekin eta bi kantu berrirekin: "Itoitz", Olatz Zugastik sortu eta kantatutakoa eta "Itsasoari begira", Jon Maia bertsolariaren testu eder bat Benito Lertxundik musikaturikoa.

BENITO LERTXUNDI

Zergatik utzi kantatzeari?

KANTUTEGIA

Lehen aldia da kantutegi baten Benito Lertxundi kantari euskaldunaren 50 kantu ezagunenak biltzen direna.

Zergatik utzi kantatzeari? da lan honen izenburua. Kantu bakoitzak melodia, gitarrarako akordeak eta euskaraz zein gaztelaniazko testuak biltzen ditu.

Benito Lertxundik bere ibilbide artistikoan 140 kantu inguru grabatu ditu, guztiak 6 E.P. eta 14 disko konpaktuetan eta beste zenbait artistekin egindako kolaborazioetan.

Kantu hauetariko batzuk bertsio berriak ezagutu dituzte: *Hunkidura kuttunak I* eta *Hunkidura kuttunak II* lanetan jasotakoak, 2005ean zuzenean grabaturiko *40 urtez ikasten egonak* lanean bildukoak edo 1998an Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin grabatu zuen *Ahuen sinfonikoa* diskoan daudenak.

Urtetako lanaren poderioz Benito Lertxundik oso ezagun bihurtu ditu kantu hauetariko asko. Horregatik lan erraza izan da kantutegi honetarako bere 50 kantu ezagunenak hautatzea.

Kantugile moduan bizi izan dituen garai guztietako kantuak, "Lorettoa" bere lehen kantua, amodio eta protesta kantuak, kantu tradizionalak, kantu epikoak, Zuberoako folkloretik datozenak, euskal poeten testuak musikatzeari sorturikoak edo Fernando Pessoa portugaldarrarenak edo Khalil Gibran libanoarrarenak.

Obra historikoa eta era berean bizi-bizia, hilezkorra.